



2023/2024 denboraldia

29. ZIRKULARRA (2023-10-18an EGUNERATUA)

*2023ko urriaren 18an 3. puntua aldatu da.

INFANTIL NESKEN F-11

1.PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

GRUPO 1 MULTZOA		GRUPO 2 MULTZOA	
1	MARIÑO REAL UNION	1	ANTIGUOKO K.E.
2	TOURING C.D.	2	HERNANI C.D.
3	OIARTZUN K.E.	3	ZUMAIAKO F.T.
4	AÑORGA K.K.E	4	ORIOKO F.T.
5	INTXAURDI C.D.	5	ZARAUTZ K.E.
		6	MARTUTENE K.E.
GRUPO 3 MULTZOA		GRUPO 4 MULTZOA	
1	AIZTONDO NESKIDE K.KLUBA	1	ALOÑA MENDI K.E.
2	AIZKORRI GOIERRI F.T.	2	AMAIKAK BAT K.E.
3	EUSKALDUNA ANDOAINDARRA S.D.	3	ANAITASUNA C.D.
4	GOIERRI GORRI F.K.	4	LAGUN ONAK C.D.
5	ILINTXA S.D.	5	ELGOIBAR C.D.
6	TOLOSA C.F.	6	UROLA K.E.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Infantil Nesken F-11 23 taldek osatzen dute, 6 ekipotako 3 multzotan eta 5 ekipotako multzo batean banaturik. Puntuka eta itzuli bakarrera jokatu da (5 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

A. TXAPELDUN FASEA

Multzo bakoitzeko lehen 3 sailkatuak (3x4=12) hartuko dute parte Txapeldunen Fasean. Multzo bakarrean eta bi itzulietara jokatu da (22 jardunaldi). 22 jardunaldiak amaitzean, lehen sailkatua izango da txapelduna.

B. GIPUZKOAKO KOPA

Besteek, 11 ekipok, Gipuzkoako Kopa jokatu dute, multzo bakarrean eta 2 itzulietara (22 jardunaldi). 22 jardunaldiak amaitzean, lehen sailkatua izango da txapelduna.



3. ADINAK

2010 eta 2011 urteetan jaiotako jokalariek har dezakete parte txapelketa honetan.

4. LIZENTZIAK

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek Infantil Nesken F-11 Mailako eskola-lizentzia izango dute.

Gehienez 20 lizentzia eduki ahal izango dira.

Era berean, eskolarteko lehiaketen eta, beraz, txapelketa honen izaera estankoa gogorarazten da, eta zerrendetako jokalariei ez zaie onartzen infantilen beste edozein kategoriatan parte hartzea. Arau hau betetzen ez bada, partida galdutzat emango da.

Aldundiaren oniritziarekin kadete mailan jokatzeko baimena duten eta txapelketa honetan parte hartuko duten jokalariek, baimena onartzen duen ebazpenean jasotako prozedurari jarraituko diote.

5. ASISTENTZIA ESTALDURA

Ohorezko Infantil Nesken lizentzia duten jokalariek Espainiako Futbolarien Aurreikuspen Sozialeko Mutualitatearen estaldura izango dute.

6. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partiden iraupena 70 minutukoa da, 35 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedenaldea, eta zazpi aldaketa egin ahalko dira. Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalariek guztiak partidan ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Partiduko hamaikakoan agertzen diren jokalariek, gutxienez 20 minutu jokatu beharko ditu eta zelaira sartzen den azken jokalariek ezingo ditu 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15. minutua baino beranduago, ezinbesteko arrazoiak izan ezik. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da.

7. DEIALDIA

Taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partidan bertan egon beharko du (gehienez 18 jokalarik). Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.

8. BALOIA

Baloia 5 zenbakiduna da eta ez da 4 zenbakidunik edo areto futboleko baloirik onartuko.



9. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

10. EPAILEAK

Txapelketa honek Gipuzkoako Epailen Batzordeak jarritako epaileak izango ditu.

11. DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAN zehaztutakoarekin bat etorritik, diziplina-eskubidea honela gauzatzen da:

a) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketaz arduratzen den kirol-federazioko diziplina-batzordeari.

b) Bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari; bere erabakiak administrazio-bidearekin amaituko du, eta aurkako errekurtoa aurkeztu ahal izango da, aplikatu beharreko jurisdikzio-arauen arabera.


12. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko urriaren 28a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General